

K O N P O N B I D E R A K O

Giltzak

LLAVES PARA LA RESOLUCIÓN



bat egiten dugu

GREBA FEMINISTA OROKORRAREKIN

Zaintza eta kartzela

Datorren azaroaren 30erako Bizitzak erdigunean dinamikak Euskal Herriko mugimendu feministak sustaturiko espazio zabala zaintzaren inguruko lana bideratzeko deitu du greba feminista orokorra.

Sare-Herritarrak bere plangintzan kokatu zuen afera honekin lotuta, ekarpen bat egingo zuela. Horren ondorioa da "zaintza eta kartzela, eztabaidarako materiala" txosten hau. Gure egitekoa, orain, bi norabidetan burutuko dugu: mugimendu feministarekin partekatzea, eta, bigarrenik, Sare Herritarreko komunitateari begirako zabalpen lana egitea.

Sarrera

Euskal Herriko mugimendu feministak sustaturiko eztabaida, gogoeta eta erronkak garatu ahala, Sare Herritarra eta Etxerat elkarteak aspaldi eguneratzeko beharra zuten eremua lantzen joan izan dira, unean uneko, beharrei erantzunez eta erpin ezberdinetatik.

Gogoratu behar dugu, beraz, azken 5 urteetan aurkezturiko txostenak atzean duten lan eta errealitate oso baten lagin bihurtu direla; eta, nolabait, esplizituki zein inplizituki, zaintzaren afera presente egon dela. Hauek dira:

- Euskal emakume presoak. Are urunduagoak, isolatuagoak, eskubiderik gabe. Sare Herritarra.
- Dispersioaren hurrak, espetxe politikaren alderik ilunena. Etxerat, 2021.
- Motxiladun hurrak txostena eta unitate didaktikoa.
- Urrunketa: kalte eta eraginak adin nagusiko pertsonengan. Etxerat.
- Nik sinisten dizut, emakumeen egia aitortu manifestua, justizia feminista eztabaidagai jartzeko Foro Sozialak bultzatutako ekimena, 'Emakumeak elkarrizketaren alde euskal gatazkan' foroaren baitan (2023an ondorioak aurkeztuta).
- "Poltsa Bete kontu" Zaintza eta emakume, testigantza ezberdiñak batzen dituen bideolanak. Sare Herritarra

- **Esteka batzuk**

Poltsa bete kontu: 2019ko apirila: <https://youtube.com/playlist?list=PLfo14lvzTrOyyle2a8iBGMULadSXkzZWH&si=KJMuwlp-2i9QZ19n>

[Tolosa 2020.01.04] Emakumeok* #AteraBidera: <https://youtube.com/playlist?list=PLfo14lvzTrOwuNNFAG6eaTtKragAEAuBI&si=tUHjl81iOo20OybE>

#Martxoak8 I Izan Bidea emakume presoak etxera:

<https://zaharra.sare.eus/martxoak8-izan-bidea-emakume-presoa-etxera/>

1. Zaintza erdigunean



‘Denon bizitzak erdigunean’ ekimenak, zeinetan Euskal Herriko mugimendu feministak koordinatuak dauden eta 2023ko azarora eta 2024ko azarora arteko zaintza kolektiboaren aldeko greba feminista orokorra deitua duenak, horrela dio Herri akordioa txostenean zaintzaren definizioa planteatzerakoan:

“Zaintza da gure mundua mantendu, jarraitu edo konpontzeko egiten dugun guztia, bertan ahalik eta hobekien bizi ahal izateko (Fisher eta Tronto)”.

Eta jarraitzen du:

“Gure ustez, zaintza bizimodu duina eraikitzeke oinarria da: ez da unean uneko zerbait, zaintza bizitzako une eta eremu guztietan beharrezkoa baita.

Gure gorputzen eta gure komunitateen iraunkortasunerako ezinbestekoa da, hau da, bizitza, ongizatea eta osasuna iraunarazteko eta kudeatzeko beharrezkoa”.

2. Zaintza eta kartzela

Interesgarria litzateke espetxea, zaintza eta euskal gatazkaren inguruko oinarri sakonen gurutzaketak lantzea. Egon badaude, gero eta gehiago, zorionez, errealitate honen berri ematen duten azterketa ezberdinak (izan akademikoak, instituzionalak,

herri dinamiketarik sustatutakoak, autoreak...)). Gure kasuan, lerro hauek bi erpini arreta eskaintzeko bideratu nahiko genituzke: alde batetik, zaintza espetxearekin gurutzatzen deneko errealitatea, eta, bestetik, zaintza lana emakumearen bizkar geratzen dela hemen ere.

2.1. Nola jarri zaintza erdigunean espetxea tartean izanik?

Etixerat elkartearen datuen arabera, 2023ko azaroan, 20 euskal preso emakume daude EPPK kolektiboan. Zaballan (Araba), Martutenen (Gipuzkoa), Iruñean (Nafarroa Garaia) eta etxean preso.

a) Zigor hirukoitza

Haien errealitatearen azterketa egiterakoan, Euskal emakume presoak txostena – Bilgune feminista eta Sare herritarraren artean landua– emakume presoak pairatzen duten zigor sozial, pertsonal eta penalaz mintzo da. Eta zentzu horretan, Harremanak eta zaintza atalean, honako hau gehitzen du:

“Euskal Presoek ‘bakartze soziala’ pairatu behar izaten dute, euren jatorrizko ingurune sozial eta kulturaletik bereizitakoan. Urruntzea eta kartzetako barne sakabanaketaz gain, bisita murriztuak, bisitaren denbora mugatua, komunikazioen interbentzio etengabea... ekarriko dizkio presoari zein bere senide eta lagunei. Bai bikote harremanak, zein harreman sozial eta familiar guztiak ezingo dira modu egokian burutu”.

Lerro hauen bidez zera ondorioztatzen dugu: edozein preso espetxe instituzioaren zaintzapean egoteak dakarren egoerari euskal preso izatea gehituz gero, txarrerantz baino ez dela areagotzen, sistematikoki aplikatzen zaizkien salbuespen neurrien ondorioz.

b) EAE-k espetxe eskumenak dituela bi urte (2021ko urriaren 1a)

2023ko urrian SAREk irakurketa “itxaropentsua” egin du Lakuak espetxe eskumena bere gain hartu zuenetik bi urte bete direnean. Hala ere, oraindik “jarrera blokeatzaileak” daudela azpimarratu du, “ardura handia” onartuz.

“Garai berri horretan, espetxe politika normalizatu batek bidea ireki beharko luke, euskal presoek kasuan eskubideen urraketa argiak ekarri dituzten eta eragiten jarraitzen duten hainbat hamarkadaren ondoren”. Zentzu horretan, gogora ekarri du

eskariak ez duela "inongo zerikusirik pribilegioekin". "Espetxe politika eta justizia baten beharrarekin lotzen da gure aldarria", gaineratu du.

Honela "ausardia" eta "egoera normalizatzeko prozesu bati ekitea" eskatu du, "bizi dugun unean kokatuta, gertatutakoaz ezer ahaztu gabe, baina behar diren neurriak hartuta, gainditutako indarkeriaren faseari behingoz bukaera emateko, minik sor ez dadin".

Presoen zaintzaren ikuspuntutik, espetxe eskumenaren lan-tresna izateak zertarako izan daitekeen baliagarria aztertzea beharrezkoa iruditzen zaigu. Baita egingarriak eta exigiarriak izan daitezkeen aldarrikapenak plazaratzea ere.

2.2. Espetxea gurutzatzen denean, zaintza lanak emakumearen bizkar

2.2.1. Espetxea tarteko, zaintza lanak emakumearen bizkar

Preso egoteak kanpoaldearekiko harremanen erabateko haustura ekartzen du, eta bere bizitzari buruz erabakitzeke ahalmena nabarmen murrizten da. Honek guztiak presoa zaindu behar den norbait izatera darama: behar dituen objektu pertsonalak norbaitek eraman behar dizkio, telefonoz deitu ahal izateko eta oinarrizko gauzak erosteko behar duen dirua norbaitek helarazi behar dio, edo bera bisitatzerara nor eta noiz (eta dispertsioaren urte luzeetan, nola eta norekin ere, horrek suposatzen zuen zailtasunarekin) joango den norbaitek antolatu behar du.

Normalean, preso bakoitzak hori dena egiteko erreferentziazko pertsona bat edo bi izaten ditu. Eta pertsona horiek emakumeak izaten dira gehien-gehienetan: bikotea, ama, arreba, amama... Honek guztiak, erreferentziazko pertsona honi karga mental izugarria gehitzen dio: dauden arazoak konpondu, errekadu txikiak egin, presoak behar duena nola helarazi, gainontzeko inguruarekin zubi-lanak egin...

Egoera are gehiago korapilatzen da preso dagoenak gaixotasunen bat pairatzen badu, askotan bere artatze egoki baterako baliabideak, espetxeak ematen ez dituenek, familiak bilatu behar izaten baititu.

Honez gain, umeak tarteko badaude, espetxetik kanpo emakume bat izaten da beraien zaintzaz arduratzen dena kasu gehienetan (umearen ama, amama, izeba). Ume baten zaintzak dituen ardurei espetxean dagoen pertsonarekin harremana zaintzea eta bere hutsunea kudeatzea ere gehitu behar zaizkie.

Urteetan zehar egunero beti buruan dagoen zerbait da, emakume horrek berez duen zaintzako beste esparruei lotutako karga mentalari gehitzen zaiona. Zaintza lanetan askotan gertatzen den bezala, kasu hauetan ere zaintzaileak askotan bere buruaren zaintza bigarren plano batean uzten du, egoera okerrago batean dagoen familiako kidearen zaintza lehenesten baita. Eta errealitate hau guztia ikusezina da, gainerako esparrutan gertatu bezala.

2.2.2. Zaintza sistema publiko eta komunitarioa:

Euskal zaintza sistema publiko eta komunitarioaren beharra aldarrikatzen du 'Denon bizitzak erdigunean' dinamikak, bi lan ardatzi azpimarra eginez:

a) Zaintzen egungo antolamendu soziala eraldatzeko beharra (premiei erantzunez epe luzeko perspektiban kokatuz).

b) Euskal zaintza sistema publiko eta komunitarioa eraikitzea (zaintza lanak demokratizatuz eta erantzukizun kolektibo gisa aldarrikatuz).

Euskal gatazkari loturiko espetxe egoera bat gurutzatzen deneko ezaugarri espezifikoei erreparatuz gero, plazaratzen diren zenbait aldarrikapenetan zer hausnartu badugu, gure ustez. Adibidez, zera aipatzen denean:

- Familia nuklearretik at, zaintzeko baimenak zabaltzea eta handitzea: loturagramak.
- Gizonak interpelatzea, ez-zaintzaren pribilegioari uko egin diezaioten eta zaintza lanetan ardura har dezaten (bizitzaren gainerako eremuetan bezala).

3. Azken lerroak

Lantxo honekin, gure asmoa, gure buruak interpelatzetik hasita, mugimendu feministak planteatu duen bizitzak erdigunean, zaintza ardatz logikari gure lan eremutik ekarpena egiten saiatzea da. Lan handia dago egiteko, eta guretik nola begiratu dezakegun aztertzeke asmo xumea baino ez da hau, aurrerantzean ekinbide iraunkorrari eusteko.

*** Dokumentu hau Sare Gernika-Lumok egin du eta haien baimenarekin elkarbanatzen dizuegu. Mila esker!*

bat egiten dugu

GREBA FEMINISTA OROKORRAREKIN

